

→ AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 11.atala

DATA: 2024/06/21



GUREAN

IKASTURTE HAU... BUKATUTA!

Gezurra dirudien arren, 2023-2024ko ikasturtearen bukaerara iritsi gara. Azken aste honetan, ekintza eta txango bereziekin asko disfrutatu dugu. Asteazkenean olinpiadak ospatu genituen eta txuriak, iaz bezala, garaileak izan ziren. Atzo, berriz, txoko ezberdinetara joan ginen ikastolako ikasle eta irakasle guztiok. HHkoak Beasain aldera hurbildu ziren. LHkoak, ordea, Iruñera joatea erabaki zuten Planetarioaren misterioak ezagutu nahian. Bukatzeko, DBHkoek Gasteizko Gamarrako parkea bisitatu zuten, hori bai, igerilekuan sarzeko... A ze komeriak! Eguraldi txarrari aurre egitea lortu genuen, ordea. Gaur, beste atal bat irekiko dugu. Oporrez disfrutatzekeo garaia iritsi da... Gozatu!



GURE INGURUAN

HERRERAKO JAIK 2024

HAURREN EGUTEGIA

Ekainak 21, ostirala, San Luis eguna

17:30 Patata tropikalaren "Ametsen mundua" ikuskizuna
18:30 Haur eta gazteentzako euskal bingo musikatua
19:30 Txokolatada
19:30 Kale animazio musikatua Herrerako Eskolaren eskutik

Ekainak 22, larunbata

11:00 Umeentzako puzgarriak
15:00 Umeentzako puzgarriak
19:15 Haur eta helduen DANDORRADA Luisito eta Luisita erraldoiekin



Ekainak 23, SAN JOAN BEZPERA

18:00 Pingo Pong eta Toka txapelketa
21:59 Ohiko San Joan Sua
23:00 Zezen suzkoa eta azken traka



GURE ARTEAN

KARLOS IBARZABAL

IKASTOLAKO ZUZENDARIA



- Balorazioak egiteko garaian gaude. Zer azpimarratuko zenuke ikasturte honetan?

KARLOS: Aurten, Hezkuntza Lege berria eta matrikulaziorako eredu berria izan ditugu eta horrek zailtasunak ekarri dizkigu. Hala eta guztiz ere, gustura bukatu dugu, izan ere, aurtengo helburu nagusi gehienak bete egin ditugu. Gainera, gure hezkuntza komunitate osoaren partaidetza izan da gehien poztu nauena, denon artean ateratzen baitugu proiektua aurrera. Hori bai, oraindik hobetzeko hainbat puntu ditugula ezin dugu ahaztu eta horretan ibiliko gara jo eta su datorren ikasturtean. Egunerokoan bezala, esku artean ditugun mekanismo guztiak martxan jartzen saiatuko gara.

- Zerbaiten falta sumatu duzu irailetik hona?

KARLOS: Eremu infomaletan, beste jolas mota batzuk txertatzea agian, inklusiboagoak... Horrelako giro batean, ikasleen arteko harremanak sendotzeaz gain, euskararen erabilera ere areagotzen dela uste dut.

- Aurtengo momenturik hunkigarriena?

KARLOS: Aurten, Marijo Garamendik eta Josu Alvarezek erretiroa hartuko dute eta ikastolako jaian beraiei egindako omenaldia mundiala iruditu zitzaidan. Beste alde batetik, DBHko 4. mailako ikasleei diplomak banatu genizkienean ere, hunkitu egin nintzen.

HITZ BATEAN...

→ ZURE TXOKORIK GUSTUKOENA?

BAKAIKU

→ DASTATZEKO PLATER BAT?

BAKAILAOA

→ PRAKTIKATZEKO KIROL BAT?

PADELA

→ NOREKIN JOANGO ZINATEKE OPORRETARA?

MAITE DUDAN
JENDEAREKIN

BERRI GEHIAGO NAHI?

